

 <p>AMOREBIETA- ETXANOKO UDALA P4800300H</p>	IL0038	Jabari publikoaren bakarreko erabilerarengatik edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasaren kitapenerako informazio jakinarazpena (zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek)
---	---------------	---

ZER DA? ZERTARAKO DA?

Hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek udalerriko bide publikoetako lurzorua, zorupearen edo lurgainaren bakarreko erabileragatik edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasaren kitapenerako beharrezkoa den informazioa emateko, horiek interes orokorrekoak direnean edo biztanleen parte garrantzitsu batean eragina dutenean, eta horretara behartuta daudenean.

NORK ESKA DEZAKE?

Ondore horietarako, hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresak hauek izango dira:

Energia elektrikoaren, uraren edo gasaren hornikuntzan diharduten enpresak.

Herritar guztientzat telekomunikazio zerbitzuak egiten dituzten enpresak, baldin eta osorik edo zati batez erabiltzen badituzte udalerriko bide publikoetako lurzorua, zorupearen edo lurgainaren bakarreko erabilera edo aprobetxamendu berezia eginez instalatutako telekomunikazio sare publikoak, sareen edo instalazioen titularra edozein dela ere.

Hornidura zerbitzuak egiten dituen edozein enpresa, baldin eta zerbitzuak egiteko erabiltzen dituen tutueria, hari eta gainerako instalazioek udalerriko lurzorua, lurgaina edo zorupea atzematen badute.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- [E007 Eskabide orri orokorra](#)
- Eskaria eredu normalizatuan. (E007)
- Aurreko hiruhilekoan jasotako diru-sarrera gordinen adierazpen ulergarria, edo/eta udalerrian duten fakturazioa egiaztatzen duten dokumentuak.

NON ESKATZEN DA?

Aurrez aurre:

- [Udaletxea - HAZ](#)
Udaletxea
Herriko plaza z/g, 48340 AMOREBIETA-ETXANO
Ordutegia: 7:30 - 15:00

Telematikoki:

- [Hasi online tramitazioa](#)

Posta arrunta:

- Posta ziurtatua
Herriko plaza z/g, 48340 AMOREBIETA-ETXANO

ZENBAT KOSTATZEN DA?

01 - Hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek udalerriko bide publikoetako lurzorua, zorupean edo lurgainaren bakarreko erabileragatik edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasak.	
Udal mugartean urtean egindako fakturaziotik datozen sarrera gordinei aplikatutako portzentaia	1.5 %

PROZEDURAREN EPEA

Aurreikusitako epea: Aste 1

Prozedura arrunta. Legezko gehienezko epea: 3 hilabete

Isiltasun-administratiboaren izaera: Aurkakoa

ARAUDI APLIKAGARRIA

- [Toki Ogasunen abenduaren 16ko 9/2005 Foru Araua](#)
- [Hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek udalerriko bide publikoetako lurzorua, zorupean edo lurgainaren bakarreko erabileragatik edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen ordenantza fiskala](#)

ESKAERA JASO ONDOREN JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA

- Jakinarazitako datuak jaso, egiaztatu eta eskaneatu.
- Datuak Errenta eta Diru-bilketa Sailari jakinarazi.
- Dagokion tasa kitatu.
- Interesatuari jakinarazi.

NORK ONARTU BEHAR DU?

IZAPIDETZEKO ARDURA DUEN UDAL SAILA

Ekonomia arloa - Diruzaintza eta zergen bilketa

OHARRAK

Hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek, hiruhileko natural bakoitzeko lehenengo hamabost egunetan, aurreko hiruhilekoan izandako diru-sarrera gordinen adierazpen ulergarria aurkeztu beharko dute Udalean. Adieazpen horrekin batera, udalerrian izandako fakturazioa egiaztatzen duten dokumentuak ere aurkeztu beharko dira, eta baita kasu bakoitzean Udal Administrazioak eska ditzakeen gainerakoak ere.

Tasa hori aitorpen-kitapen edo autokitapen erregimenean aurkezten bada, hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek, hiru hilabetez behin, Udal Administrazioan, Ekonomia eta Ogasun Sailean, hiruhileko naturala amaitu eta 30 egun naturaleko epearen barruan, Tasa horri dagokion aitorpen-kitapena edo autokitapena aurkeztu beharko dute. Bertan, aurreko hiruhilekoan udalerrian honetan izandako fakturaziotik sortutako diru sarrera gordinak jasoko dira. Datu hori ezinbestekoa da kuota adierazteko. Kuota horren ordainketa, aitorpen-kitapena edo autokitapena aurkezten den unean egin beharko da

Aitorpen-kitapenarekin edo autokitapenarekin batera, udalerrian izandako fakturazioa egiaztatzen duten dokumentuak ere aurkeztu beharko dira, eta baita kasu bakoitzean Udal Administrazioak eska ditzakeen gainerakoak ere.